

MONTENEGRO. Igandean izandako hauteskundeetan, hautesleen %45ek baizik ez dute bozkatu



SASA STANKOVIC / EPA




Montenegroko presidente ohi Milo Djukanovic —ezkerrean— eta Filip Vujanovic presidente izateko hautagaia, igandean, botoa ematen.

Presidentetzarako bozak baliogabetu egin dituzte, parte-hartze txikiagatik

«Boikoterako deiei» aurre egiteko eskatu du Podgoricako agintearen hautagai Vujanovicek

Montenegroko bozak

Parte-hartzeak gutxienez %50ekoa izan behar du bozak baliogabeko izan daitezkeen



Erredakzioa | DONOSTIA

Montenegron, joan den igandean egin ziren lehendakartzarako hauteskundeetan lehen itzuliko emaitzak baliogabetu egin dituzte, boz horietan hautesleen % 45,9k bakarrik parte hartu duelakotz. Serbiarekin batera Jugoslaviako Estatu Federala osatzen duen 690.000 bizilagunek herri horren Konstituzioak, ordea, % 50eko parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen du bozak baliogabeko izan daitezkeen.

Gauzak horrela, presidentzialen lehen txanda hori berregin beharko da —ziur aski,

2003ko urtarrilaren 12an—, igandean lehiatu ziren 11 hautagai berdinekin. 11 lehiakide horien artean boto kopuru nabarmen handiena bereganatu zuen Podgorican agintean den eta Sozialisten Alderdi Demokratikoa (DPS) eta Alderdi Sozialdemokrata (SDP) indar politikoei osatutako koalizioaren hautagai Filip Vujanovicek.

Montenegroko Parlamentuko presidentea eta Errepublikako behin-behineko lehendakari karguetan denak botoen % 83,9 lortu zituen, 175.984 boz bereganatuta. Emaitzen berri hartzean, Vujanovicek aitortu zuen parte-hartze txikiagatik porrot eginarazi diola lehen itzuliari, baina bigarren txandarako botoa ematerat joateko deia egin zien hautesleei, baita «indar desagileen boikoterako deiei muzin egiteko» ere.

Hitz horiekin oposizioa indar politiko nagusi SNP Alderdi Sozialista Popularra zuen gogoan. Serbiarekin bat eginda geratzearan alde den alderdi horrek lehendakartzarako hauteskunde horien boikotatzeko deia egin zuen. Dragan Koprivica SNPko eledunak azaldu zuen boikotatzeko jarraia hori ebatzi zela «Montene-

SRDJAN DARMANOVIC

Montenegroko politikan aditua

«Parte-hartzearen %50eko gutxieneko mailak boikot egiterat bultzatzen ditu garaile izateko aukerarik ez dutenak»

gron giro demokratikorik ez baita eta aginteak aurkarien aurka presio oso handiak egiten baititu».

Agintea, «sendo»

Argudio berdinak baliatu zituen, hain zuzen, Vujanovicek parte-hartze eskasegia azaltzearen, zeren eta, haren iduriko; oposizioak presio handiak egin ditu hautesleei buruz, «etxean egon zitezen lortzeko». Vujanovic apur bat atsekabetuta agertu zen, baina iragan azaroan dimititu zuen arte Montenegroko lehendakari egon zen Milo Djukanovic, oster, aski baidar azaldu zen igandeko bozen emaitzez.

«Ez naiz batere lazeriazta igande honetako emaitzekin, zeren eta agerian utzi baitute gure hautesle basea hazi egin dela azken bi hilabeteotan»,

adierazi zuen Montenegroko gobernu berriaren buruzagitza hartzeko asmoa duen Djukanovicek. Iritzi berdineko agertu zen DPSko eledun Predrag Sekulic ere, horrek ziurtatu baitzuen agintean den alderdia «sendotuta» irten dela lehendakartzarako bozen lehen txandatik. Iragan urriaren 20an egin ziren Legebiltzarrerako hauteskundeetan, agintean den koalizioak Parlamentuko 75 jarlekuetatik 39 bereganatu zituen.

Montenegroko politikan adituek garrantzia kendu zioten lehendakartzarako bozen lehen itzulia baliogabetzeari, beraiek ere azpimarratu baitzuten Djukanovicen koalizioa «oso sendoa» dela eta boterea aurrera eramateko baliabide guztiak eskutan dituela.

Politika aditu horiek, ordea, hautesle kopuruaren % 50ek derigorrez parte hartzearen kontua kaltegarritzat jo zuten. CEDEM Trantsizio Demokratikorako Zentroaren zuzendari Srdjan Darmanovicek zera adierazi du: «Parte-hartzearen gutxienezko maila horrek boikotatzeko deia egiterat bultzatzen ditu garaile irteteko aukerarik ikusten ez duten indar politikoak».

LITUANIA

Aukera guztiak ditu Adamkusek lehendakari karguari eusteko bigarren aldirako

Erredakzioa | DONOSTIA

1998. urtetik jardunean den Valdas Adamkus Lituaniako lehendakariak aukera guztiak ditu bigarren agintaldi batean geratzeko. Izan ere, joan den igandean egin ziren lehendakartzarako hauteskundeetan lehen txandan boto kopuru handiena lortu zuen, bozen %35,2 bereganatuta. Hala ere, 2003ko urtarrilaren 5ean egingo den bigarren txandan lehiatu beharko zaio.

Guztira, 17 hautagai lehiatu ziren, 1991. urtean Sobietar Batasuna desagitean, bere burujabatasuna lortu duen eta 3.500.000 bizilagun dituen Baltikoko herri horren lehendakartzarako. Botoen % 18,8rekin bigarren irten dena Rolandas Paksas lehen ministro ohia izan da, eta bera da bigarren txandan lehiatuko Adamkusen aurka.

Hirugarren lekua baino ez du erdietsi, ordea, 1998ko presidentzialen bigarren itzulian geratu zen Arturas Paulaskas zentro ezkerrekoak. Gaur egun Seimas Lituaniako Legebiltzarreko presidentea kargutan denak botoen % 8,4 baino ez du lortu.

EBn sartzea lortzea

Orain dela lau urteko bozetan Paulaskasi doi-doi gailendu ziolarik Adamkusek, aldi honetan, berriz, faborito oso argia zen, batez ere, Lituania, 2004an, Europako Batasunean kideatzeko erronka irabazi duelakotz. Lituania NATO aliantza atlantikoan sarraraztea ere lortu du Adamkusek.

Horiek horrela, George W. Bush Ameriketako Estatu Batuetako presidentea Lituaniarekiko adiskidantza goraipatu zuen, orain dela gutxi Vilniusen egindako bisitaldian. Etxe Zuriko buruak esan zuenez, «Lituaniak, edozein etsaiekin topo eginda ere, honek AEBak ere izango ditu etsai». Adamkus faborito argi izate horrek, ziur aski, eragina izan zuen parte-hartzean, horrek % 50a doi-doi gailendu baitzuen.